



**Bilboko
Elizbarrutia**
DIÓCESIS DE BILBAO

JESUSEK JAINKOAREKIN HITZ EGITEN IRAKASTEN DIGU

8. ERANSKINA

ERAGILE, KATEKISTA, GURASOENTZAT

**Delegación de Anuncio y Catequesis
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza**

JESUSEK JAINKO AITAREKIN HITZ EGITEN IRAKASTEN DIGU ETA HORI EGITEKO ADORE EMATEN, OTOITZA ¹

Ez dago kristau bizitarik Jainko Aitarekin hartu-emanik ez badugu, Jainko Aitarekiko elkartzeko eta elkarrizketa era berezian zaintzen ez badugu, otoitz egiten ez badugu. Fedea esperientzia eta lekukotasunaren bidez loratzen den Jainkoaren doako dohaina da, baina ezinbesteko du otoitza -Jainkoarekiko elkartzea- sustatzeko, umatzeko eta finkatzeko. Horixe da Nazaretoko Jesusengan, bere bizitzan eta mezuan antzematen eta ikusten duguna. Jainkoarekiko hartu-emanari eutsi, kristau izan, gure bizitza espiritualean hazi, benetan otoitz egiten ikasi nahi badugu, hurrei otoitz egiten irakatsi... nahi badiegu, jar dezagun arreta Jesusengan, jarrai dezagun bere urrats eta irakaspeneren atzetik. Bera da gure maisurik onena.

Ezinbestekoa dugu beste batzuekin hartu-emana izatea, batik bat, hurkoekin eta adiskideekin; horrela gertatu ezean, pobretu egiten gara giza nahiz gizarte arloan. Era berean, kristaua, Jainkoarekiko harremana landu ezik, pobretu egiten da eta Harengan sinesteari utzi egiten di. Izan ere, lantzen ez den adiskidetasuna ahaztu eta, azkenean, galdu egiten da. Kristauak, katekistak, aita edo amak, heldu nahiz txikiak, Jainkoarekin harremanik ez badu, otoitz egiten ez badu, ez da ebanjelioaren arabera hazten eta bere fedea makaldu egiten da.



Nazaretoko Jesusentzat ezinbestekoa eta erabakigarria da Jainkoaren esperientzia eta Honekiko hartu-emana. Jesus ez da burua hamaika kontutan eta inon ez duen pertsona, makina bat gauzak arreta erakartzen diona, Jainkoarengan, bere eta guztion Aitarengan jartzen baitu arreta osoa. Jainkoa dago bere jardueraren, bere mezuaren bihotzean eta Hark betetzen du zentzuz bere bizia. Jainkoaren erreferentziarik gabe, Jesusen irudia indargabetuta geratzen da, bere mezua ahulduta eta bere jardutea Berak ematen zion sena kenduta.

Nola bizi du Jesusek Jainko Aitarekiko hartu-emana

Ebanjelioen lekukotasunean sakonduz gero, hauxe antzemango dugu berehala eta argitasun osoz: Jesusentzat, Jainkoa ez da teoria, Norbait da, eta beronen esperientzia du, beronekin hartu-emana du, ezagutu eta maite du, eraldatu egiten du eta guztiontzako bizimodu duin, atsegin, gizatiar eta zorionekoagoa bilatzera bultzatzen du.

Jesusek ez du Jainkoari buruko doktrina proposatzen, aitzitik, Hari lotutako, Harekiko harremanaren esperientzia eta lekukotasuna ematen du. Eta harritu egiten du bere garaiko jendea eta harritu egiten gaitu geu ere, ez Jainkoari buruzko ideia berriak azaltzen dituelako, bere eta guztion bizitzan txertatzen duelako baizik.

Jainkoaz duen esperientziaren eraginez, Jainkoa Aita, adiskide, bizi-emaile, zorientasunaren eragile bezala ikustea eta sentitzea galarazten dieten beldur eta morrontzetatik askatzen ditu pertsonak.

Bere herriaren fedean sustraituta, Jesusek Israelen tradizio erlijiosoa ezagutu egiten du eta horretatik elikatzen da. Baina ez da bere ibilbide espirituala berritzearekin asebetetzen. Jainkoa bere bizitzan bilatu egiten du eta bere bihotza ireki, Jainkoak, une hartan, bere herriari eta Berari esan nahi diona entzuteko. Basamortuan murgiltzen da, Bataiatzaileari entzuten dio, leku bakartuen bakardadea bilatzen du, ordu luzeak ematen ditu isilik... Jainkoak nahi duena egin nahi du, horixe irrikatzen du. Eta giza hitzik ahoskatu gabe hitz egiten duen Jainkoa bihurtzen da bere bizitzaren ardatz eta bizi-iturri.

Funtsezko esperientzia

Ebanjelioak bat datoz Jesusen jarduera profetiko, sendatzaile eta askatzailearen sustraian, Jordan ibaian gertatu zuen bere bataioan bizi izan zuen Jainkoaren esperientzia bizi eta sakona zegoela esatean. Hitz horiek entzun arte bizi izan zuena eta aurrerantzean bizi izango zuena argi eta garbi azaltzen dute: "Zu zaitut neure Semea, neure maitea, zu zaitut atsegin" (Mk 1, 11). Horra hor bizipen eta agerkunde atsegin eta pozgarria. Eta Jesusek Jainkoarengana jotzen duenean darabilen Abba hitzak dena esaten du: erabateko konfiantza Jainkoarengan eta Jesusen baldintzarik gabeko prestasuna.



Jesusek bizitzan konfiantza nabarmentzen da. Egiten duen guztia, jarrera egiazko, berezko eta biziarekin egiten du: Aitarengan erabateko konfiantza izanik. Aitaren borondatea bete nahi du errezelo, kalkulu edo estrategiarik gabe. Konfiantza hori dela-eta, aske da ohitura, tradizio edo eredu zorrotzetatik; Aitarenganako leialtasunaren eraginez, sormena, berritasuna eta ausardia dira bere jokaeraren ezaugarriak. Hain da handia Jainkoarengan duen konfiantza non honen borondatea betetzea den bere xede bakarra. Horixe lehenesten du.

Otoitzaren garrantzia

Jesusek ez zuen inoiz ahaztu Jordanen bizi izan zuena. Horregatik, bere jardute bizian, etengabe bilatu izan zuen Jainkoarekiko hartu-emanak isiltasun eta bakardadean. Kristau iturriek zirrara handia eragin zuen ohitura gogoratzen dute: Jesus mendira edo aparteko lekuren batera baztertzeko. Judu jainkozaleentzat ezarritako aldietan otoitz egiteaz gainera, Aitarekin bakarka, buruz buru, isiltasun betean bat egitea bilatzen zuen. Esperientzia hau, behin eta berriz egindakoa eta beti berria, ez da bere eguneroko bizitza eta egitekoari gehitzen dion derrigorrezko ekintza; bere Seme bihotzak irrikatzen duen elkartzea da, bere buruaren egarria asetzeko nahitaez edan behar duen uraren iturria. Horregatik, otoitza hil edo bizikoa da bere bizitzan eta irakaspenean.

Ebanjelioetan jasotzen denez, Jesusek sarri eta beren-beregi otoitz egiten du. Ebanjelioetan, hainbat aipamen jasotzen da; laburrak dira, baina ugariak. Otoitz egin zuen basamortuan, mendian (Mk 6, 46), aparteko lekuetan, goizalde (Mk 1, 35), gauetz (Mt 14, 23), une berezietan (Lk 3, 21; 9, 18. 29), erabaki garrantzitsuak hartu aurretik (Lk 6, 12), mirariak egin aurretik, jendetzaren aurrean prediku egin ondoren, ikasleak misiotik itzultzen direnean (Lk 10, 21-22), olibondoen baratzean (Mt 26, 36-44), kurutzean (Mk 15, 34; Mt 27, 46)... Lagun jakin batzuen alde ere otoitz egiten du: Pedoren alde (Lk 22, 23), bere borraroen alde (Lk 23, 24), bere ikasleen eta ondorengo guztien alde (Jn 17)... Jesusek ezinbesteko zuen otoitz egitea, Jainko Aitarekiko hartu-emanak horretara bultzatzen baitzuen. Otoitza ez zen derrigorrezko zerbait, bere bihotzaren irrikatik sortzen zen jarduera baizik.

Maisu ona

Bete taldekideek, entzuten zutenek, bide eta herrixkan zeharkatzean bidelagun zituenek, esperientziak, aisialdia, elkarrizketak, atsedendia, bideko hautsa, jatekoen eskasia, Jainkoaren Erreinuaren aldeko lana konpartitzen zutenak ohartu ziren, bai, Jesusen otoitz egiteko eraz eta Jainkoarekin zuen harreman bereziaz. Jesusek ez zuen farisearrek eta ikasleek ezagutzen zituzten garaikideek bezala otoitz egiten; bere otoitza bere bihotzaren irrikatik sortzen zen eta era harrigarrian zuzentzen zen Jainkoarengana Abba (aita) deituz. Hori ikusita, ikasleek berdin otoitz egin nahi izan zuten eta otoitz egiten irakasteko eskatu zioten.

Bat-bateko galdera izango zen, prestatu gabekoa, nahi, behar eta bihotzetik sortutakoa. Galdera naturala, Jesusek Jainko Aitarekin zuen harreman naturalaren ondorio. Eta Jesusek Aitagurea irakatsi zien -eta irakasten digu:

"Otoitz egitean, esazue: Aita, agertu santu zeure izena, etorrarazi zeure erregetza; emaguzu egunean eguneko ogia, eta barkatu gure bekatuak, guk ere zor diguten guztiei barkatzen baitiegu, eta ez utzi gu tentaldian erortzen" (Lukas 11, 1-4).



"Behin batean, Jesus otoitzean ari zen toki batean; amaitu zuenean, bere ikasleetako batek esan zion: «Jauna, irakatsiezaguzu otoitz egiten, Joanek bere ikasleei irakatsi zien bezala" (Lk 11, 1).

Jesusek irakatsi digun otoitzak Jainkoaz duen esperientzia, erreinuan duen fedea eta munduaz duen ardura laburbiltzen du. Bere bihotzeko nahi handiak eta, isilaldi eta otoitzaldi luze eta ohikoetan, Aitari zuzendutako oihu eta erreguak islatzen dira. Otoitz laburra da, zehatza, zuzena eta, zalantzarik gabe, harrigarria izango zen hizkuntza ospetsu eta erretorikoz otoitz egiteko ohitura zutenentzat.

Jesusen otoitza, "Aitagurea" deitutakoa, otoitz nagusizat hartu izan du Elizak hasiera-hasieratik eta horixe bakarrik irakatsi zuen Jesusek bere jarraitzaileen fedea sustatzeko. Aitagurea otoitzaren bitartez, hiru irrika aurkezten dizkiogu Aitari: Bera izan dadila beti gure bizitzako ardatz, eragile eta oinarri:

- Santu izan bedi zure izena: Zeu errespetatu nahi zaitugu eta zure izena errespetatu nahi dugu; gure bizitzetako onena, santuena, baliotsuena zarela aitortzen dugu.
- Etor bedi zure erreinua: Zuk ematea nahi dugu, irrikatzen dugu eta horretarako lan egiten dugu, maitasuna, zuzentasuna, egia, bakea... loratuko diren munduan bizi gaitezen.
- Egin bedi zure nahia: hau da, zeuk gura duzuna, zeure ametsa, bihotzean gordetzen duzuna...
- Eta seme-alaba eta anai-arreba bezala bizitzeko behar duguna ere adierazten dugu, hau da, gorputzak eta espirituak behar dituen gauzak: eguneroko ogia; bekatuen eta jokaera txarren barkamena; tentazioan ez jaustea, hau da, ongi eta zuzen aukeratzea, gaitzetik eta bere sareetatik -agerikoak nahiz ezkutukoak- ateratzea..

Taldearen otoitz egiteko erak Jainkoarekiko harreman jakin bat adierazten du eta guztiak fede berari lotzen dituen esperientzia da. Aitagurea -esan, sentitu eta bizitakoa- Jesusen jarraitzaileen nortasunaren bereizgarri onena izan da eta da. Gure espiritualtasunaren eta Jainkoarekiko harreman eta elkartasunaren bereizgarria da.

Baldarrak izan gaitzke, zailtasunak aurki ditzakegu kanpoan eta barruan, otoitz egitea ahaztu dakiguke edo aitzakiak jar ditzakegu otoitz ez egiteko... baina Maisurik onena dugu. Otoitz egiteko (edo otoitz egiten ikasteko) Jesusez fidatu behar dugu eta bere gidaritza onartu.

Probatu eta ikusiko duzu!